AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1068

326/2014 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Félix López Bernardos jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzu Kliniko Orokorretako zuzendariorde mediko izendatzen duena.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzu Kliniko Orokorretako zuzendariorde mediko lanpostua betetzeko deialdia 2014ko urtarrilaren 20ko EHAAn argitaratu zen (12. zk.), zuzendari gerente honen urtarrilaren 3ko 9/2014 Ebazpenaren bitartez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztutako agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Félix López Bernardos jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Gerentzia honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Félix López Bernardos jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zerbitzu Kliniko Orokorretako zuzendariorde mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2014ko otsailaren 17tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gurutzeta-Barakaldo, 2014ko otsailaren 10a.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.